



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

HLEA

PROBA IDATZIA

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra
- Denbora: **3 ordu.**

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Orain grabazio bat entzungo duzu. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik galderak irakurtzeko denbora izango duzu. Gero galderen erantzuna idatzi behar duzu erantzun-orrarian.

1. atala

1.- Zein erakunde bildu da euskal familia aztertzeko?

- a) Euskaltzaindia.
- b) Eusko Ikaskuntza.
- c) Aranzadi zientzia-elkartea.
- d) EHUko Antropologia-saila.

2.- Garai batean, berandu ezkontzen al ziren?

- a) Bai,; oro har, bai.
- b) Ez, gazterik ezkontzen ziren.
- c) Ez, baserri-giroan ez.
- d) Ez dago daturik.

3.- Geroztik, aldatu al da ohitura hori?

- a) Ez, orduan bezala jarraitzen du.
- b) Ohitura areagotu egin da.
- c) Bilakaera konplexua izan da.
- d) Ez du bilakaerarik izan.

4.- XXI. mendean, gazteago ezkontzen al gara?

- a) Bai, lana badugulako.
- b) Ez, beranduago eta gutxiago.
- c) Bai, modan jarri da.
- d) Ez, inork ez du pausu hori ematen.

5.- Gure inguruan, gazteago ezkontzen al ziren?

- a) Ez zegoen alde handirik.
- b) 4 edo 5 urteko aldea zegoen.
- c) Lurralde hotzetan, beti lehenago.
- d) Elizak jartzen zuen adina.

2. atala

6.- Zein zen sistema zaharraren helburua?

- a) Seme-alaba guztiak kontuan hartzea.
- b) Inor ez baztertzea.
- c) Baserria ez banatzea.
- d) Lan gehien egiten zuena saritzea.

7.- Zergatik zeuden horrenbeste ezkongai?

- a) Baserria ez zeukanak jai zuelako.
- b) Baserrira inork ezkondu nahi ez zuelako.
- c) Fraide edo moja joan nahi zutelako.
- d) Neskazahar edo mutilzahar izan nahi zutelako.

8.- Zenbait tokitan, seme-alaba guztien artean egiten al zen banaketa?

- a) Noski, Gaztelako legea baitzen nagusi.
- b) Jakina, Foruek hori babesten zuten.
- c) Semerik ez zen etxeetan, bai.
- d) Horixe, giza eskubideetan babesten ziren.

9.- Gipuzkoan, Gaztelako legea al zen nagusi?

- a) Ez, foru idatzia zeukaten.
- b) Ez, ohitura zaharrari jarraitu zioten.
- c) Bai, ohitura zaharrak aldatu zituzten.
- d) Ez, bakoitzak nahi zuena egiten zuen.

10.- Baserriaren ohitura zaharrari eusteko, zer egiten zuten?

- a) Ohitura berriak probatu.
- b) Legegizonak erosi.
- c) Legeari aurre egin.
- d) Legearen hutsarteak erabili.

Iturria: *Euskadi Irratia*



2. IRAKURMENA

Aguará Guazúa

Hogeita bost urte nituenean -kontatzen du blogariak-, nire bizitzako garairik zoriontsuena bizi izan nuen. Aspalditik maite nuen neskaekin ezkondu berri nintzen, eta ezkontza-bidaia Europara egitea erabaki genuen. Itsasoan kruzero luzea egitea baztertu, Isabelitari itsasoak beldurra eragiteaz gain, oka eginarazten ziolako, eta hegazkinez joan ginen. Hainbat leku ezagutu ondoren, udako egun beroenak Italian egokitu zitzaizkigun. Gure zorionak, beharbada, ahantzarazi egin zigun Paraguaiko negu gordinari Europako uda gorria zegokiola.

Hala, Erromara iritsi ginenean, italiarrek *ferragosto* deitzen dioten udako egun (...11...) genituen gainean. Ez ginen oso eroso sentitzen, baina erabaki genuen bero salasta hura ere ez zela gure zoriona (...12...) gai izango. Elkarrekin gauzak egin nahi genituen, elkarrekin bizitzen ikasi nahi genuen, eta elkarrekin bizi eta elkarrekin gauzak eginez aritu ginen etengabe Erromako egun sargori haietan.

Goiz batez, Erromako zورا joateko (...13...) hartu zuen nire Isabelita, eta nik ezin ezer ukatu nire maiteari!

Ez genuen, ordea, ondo antolatu gure txangoa. Gauza bat eta bestea, goizean goiz hasi nahi genuen irtenaldia (...14...) egin zitzaigun ustekabean, eta -gure erromantizismo txoroaren beste aukera txoro bat- taxi bat hartu ordez, autobus batean abiatu ginen Erromako gure ostatutik zoo aldera. Bizitzan hartu ohi diren erabaki oker (...15...) bat izan zen, zalantzarik gabe. Ez genion autobus-gidariari ondo aditu, edo ez genion elkarri ondo ulertu, eta zooko (...16...) nahiko urrun utzi gintuen. Villa Borghese uste dut izena duela zooa dagoen parkeak —izen txarreko lekua dela entzun izan dut, gauetan behintzat—, eta hiriaren erdian berdegunezko (...17...) zabala da, hiriko muinoen artean kokatutako baso galdua.

Bidean gindoazela, piztien gorotzen kirats mingotsak eta tximinoen eta beste hainbat animalia oihuek esaten ziguten ez (...18...) oso urruti; baina, hala ere (agian hain hurbil sumatzen genuelako eta, bestalde, hain gogorra egiten zitzaigulako eguerdi aldeko eguzkipean iristea), umorea (...19...) sumatzen nuen, goiz hartako eragozpen txiki guztiak pilatu eta jasateko gehiegi bilakatu zirela sentitzen.

Eguzkiak itotzeko zorian (...20...) gintuen, eta nire nahi bakarra zoo barnera sartzea zen, ea han itzal freskoren bat bazen.

Hantxe sentitu nuen lehendabiziko aldiz Isabelita ez zela izaki perfektua, zora joateko bere apetaldi harengatik ari ginela eguzkipean gorriak ikusten. Horrek (...21...) aipaezina sortzen zidan barrenean. Konturatu nintzen maitasun eta zorionik indartsuena ere ahuldu egin daitekeela beroaren, gosearen, izerdiaren edo noraezean ibiltzearen poderioz, eta halako (...22...) bat sentitu nuen. Esan nahi dut Erromako oroitzapen ederren artean eguerdi hartako izerdiaz eta hautsaz gogoratzeak aztoratu egiten nauela. Esan nahi dut ez dudala oroitzapen onik Erromako zooaz. Eta esan nahi dut (...23...) eta zikina iruditu zitzaidala, azkenean ateraino iritsi, sarrera ordaindu eta barrura sartu ginenean.

Hala ere, Isabelak animalia ezezagunak ezagutzeko zuen irrika eta ilusioa ez apurtzearren, alai agertzen saiatu nintzen zoo larderiatsu hartan, eta (...24...) maskara batekin batetik bestera ibili nintzen, kantina zahar batean erositako ogitartekoari gogo handirik gabe hozkada txikiak emanez.

Ume-garaian gure auzoan zen okindegi bat etortzen zitzaidan behin eta berriro burura. (...25...) zen nagusia eta labezomorroak behar baino ugariago ikusten ziren lokal hartan. Baina

okerrena udako egun beroetan labeko ataka irekitzen zuenean izaten zen, bero zamatsu eta usaindun hura. Huraxe etortzen zitzaidan burura zora sartuta: leku zikina eta sobera beroa.

Gainera, (...26...) sentitzen nintzen animalia ezezagun haiek guztiak kartzela txikietan ikusita. XX. mendearen hasierako zooa zen, inola ere, eta ordudanik gehiegi berritu gabea, esango nuke. Burdinazko kaiolak ziren animalien bizileku, burdin sare eta guzti animalia txikientzat. Eguraldiaz gain, kaiola haiek ere (...27...) sortzen zuten.

Kartzelaz kartzela joan ginen Isabela eta biok, galeria batean etsipenez jotako presoak bisitatzen ariko bagina bezala. Gero eta lur joago sentitzen nintzen, burdinazko kaiola haietako animalien artean (...28...) bat ikusi nuenean. Sakonetik ateratako, baina agian gezurrezkoa zen poz batek alaitu ninduen zertxobait, eta *aguará guazú* oihuarekin egin nion (...29...) kaiola barneko otso gorriari.

Gure arteko isilune luzea eta haserre puntukoa urratzeko (...30...), esan nion emazteari otso hartaz nekien guztia. Kontatu nion txikitan neskame guarani bat izan nuela, eta hark erakutsi zizkidala animalia gorrista haren kondairak, eta hamalau urte nituenean, neskameak bere herrira eraman (...31...) oporretan, egun batzuk pasatzera, eta han, herri hartan, ikusi nuela lehenengo aldiz animalia baldar bezain eder hura.

Kaiolaren kanpoko aldean *Chysocyon brachyurus* izena jartzen zuen etiketan, eta mapatxo batean adierazita zegoen zein lurraldetan bizi zen, nola zenbait lekutan desagertzeko zorian zegoen eta beste (...32...) informazio.

Animalia hura ikusteak mutiko-garaiko oroitzapenak ekarri zizkidan, eta beroak eta eguzkitan ibili beharrak moteldutako entusiasmoa berpiztu zidan. Horrela, aspaldiko oroitzapenek piztutako (...33...) hark bultzatuta edo Isabelak eskaini zidan irribarreak eraginda, aurrera pasatzea debekatzen zuen hesi txiki bat gurutzatu nuen eta, kaiolaren alboan jarrita, argazki bat ateratzeko esan nion Isabelari. Gero, kamera eskatu, eta oraindik gehiago hurbildu nintzen animaliaen kaiolara.

Kamera barroteen artean sartu eta argazki bat atera nahi nion hango piztia (...34...). Bat enfokatzen nuen bitartean, bestea hurbildu egin zitzaidan, eta ez nuen ikusi. Nire sandalia irekien artetik kanpora arrosa kolorez ageri ziren behatzak gai interesgarritzat hartuz, animaliak atzaparrarekin behatz haiek bereganatzeko keinua egin zuen. (...35...) mina sentitu nuenean, atzera bota nuen gorputza, eta kameraren objektiboak barroteetan kanka jo zuen.

Oihu egin zuen Isabelak, eta neu ere ikaratu egin nintzen zertxobait; baina ez zegoen, itxuraz behintzat, larritzeko motiborik. Oinean egindako arrastada bat besterik ez zen.

J. M. Olaizola "Txiliku", Bizien gaubeilan.



11.- a) lardaskatsuak b) itogarriak c) betegarriak d) arnasestuak	12.- a) bizkortzeko b) azaleratzeko c) ezabatzeko d) gozatzeko	13.- a) apetaldiak b) gogoetak c) ahaleginak d) negarrak	14.- a) ahaztu b) zapuztu c) atzeratu d) moteldu
15.- a) zorigaiztoko b) sinestezin c) horietako d) barkaezin	16.- a) parketik b) sarreratik c) karioletatik d) garrasietatik	17.- a) orban b) tontor c) bailara d) belardi	18.- a) genbiltzan b) gentozela c) gindoazen d) genbiltzala
19.- a) petraltzen b) haserretzen c) zokoratzen d) astintzen	20.- a) laztantzen b) estutzen c) larrutzen d) ukitzen	21.- a) zailtasun b) jakingura c) goragale d) ezinegon	22.- a) barealdi b) ziurtasun c) nahasmendu d) nekaldi
23.- a) zaharkitua b) berriztatua c) eguzkitsua d) zabalegia	24.- a) kartoizko b) gezurrezko c) oparitutako d) krokodilo	25.- a) Herrena b) Txukuna c) Odolberoa d) Narrasa	26.- a) nekoso b) seguru c) pentsakor d) ezeroso
27.- a) estualdia b) tristezia c) itolarria d) ihesaldia	28.- a) ezagun b) egiazko c) sekulako d) ezezagun	29.- a) zarata b) grazia c) laguntza d) diosala	30.- a) gogaitzen b) amorratzen c) zorabiatzen d) gogoratzen
31.- a) ninduela b) nauela c) zidala d) zituela	32.- a) zerbait b) gehiago c) hainbat d) hainbateko	33.- a) pelikula b) harritxo c) umetxo d) gar	34.- a) itsusiar b) bikoteari c) multzoari d) ezezagunari
35.- a) Izualdiaren b) Urraduraren c) Zapalduaren d) Maitearen			



Idatzi zure kodea:									
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--

3. IDAZLAN LUZEA

Honako bi gaien artean bat aukeratu, eta gutxienez 200 hitzeko idazlana osatu behar duzu.

Gazteak, nolakoak dira? Askotan kritikatu egiten ditugu gazteak (parrandak, bortizkeria, drogak...). Bestalde, prestakuntza handia dute, lan-mundura sartzeko arazoak... Egin zeure hausnarketa eta idatzi artikulua bat, herriko aldizkarian publikatzeko. **Hizpideok garatu:**

- Analizatu egungo egoeraren zergatiak.
- Aipatu irtenbide posibleak.
- Ondorioak eta iradokizunak.

Etxebizitza: guztion eskubidea?

Krisiaren ondorioz, jende asko ezin da bizi etxe duin batean. Eskubidea guztiona omen da, baina ez da betetzen, inondik inora. Zure herriko aldizkarian artikulua bat idatziko duzu

Hizpideok garatu:

- Analizatu egungo egoera.
- Hainbat faktore: hipotekak, langabezia, kaleratzeak...
- Azaldu zeure iritzia eta ondorioak.

10.....

20.....

30.....

40.....

50.....

60.....

ERANTZUN ZUZENAK

HLEA: Ahozkoaren Ulermena (Euskal familia)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	A	C	B	B	C	A	A	B	D

HLEA: Irakurmena (Aguará Guazúa)

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
B	C	A	C	C	B	A	D	A	B
21	22	23	24	25	26	27	28	219	30
D	C	A	B	D	D	C	A	D	B
31	32	33	34	35					
A	C	D	B	B					